

**KRIMINOLOGIAKO PROFESIONALEN ZALANTZAK ARGITZEKO  
BALIABIDEAK INTERNETEN-2:**

**Corpusak eta Itzulpen-memoriak**

**Irakasgaia: Euskararen Arauak eta Erabilerak Kriminologiaren alorrean**

*Nagore COTO RUIZ*

*Janire MELENDRE SAN PEDRO*

**AURKIBIDEA: I. Sarrera. -II. Corpusak:** 1. Corpus orokorrak: 1.1. XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoa. -1.2. Ereduzko prosa gaur. -1.3. Goenkale corpora. -1.4. Consumer corpora. 2. Corpus espezializatuak: 2.1. Zientzia Irakurle Ororentzat corpora. -2.2. Pentsamenduaren Klasikoak corpora. -2.3. Zuzenbide corpora. **-III. Itzulpen-memoriak:** 1. Itzulpen-memoria orokorrak: 1.1 Bizimena Itzulpen-Memoriak. 1.2. I-Memoriak.- 2. Itzulpen-memoria espezializatuak: 2.1. IDABA. 2.2. Justizia sailaren itzulpenak.- **IV. Zer eskaintzen diote zuzenbideko zein kriminologiako ikasle, aditu zein profesional bati?.** -V. Bibliografia.

## I. Sarrera

Gaur egun, dakigunez, interneteko baliabideak oso lagungarriak izan daitezke arlo profesionalean. Hori dela eta, lan honen helburua da corpusak eta itzulpen-memoriak lantzea.

Alde batetik, corpusak, testu mota ezberdinen bilduma handiak dira. Hauek, formatu elektronikoen agertzen dira eta hitzezkoak zein idatzizkoak izan daitezke. Bertan, zenbait milioi hitz kodifikatu eta klasifikatu egiten dira era egokian. Honekin batera, hitzak gorde eta prozesatzen dituzte, erabiltzaileak bilaketa ezberdinak egin dituzan hainbat testu elektronikoen artean.

Bereziki, corpusak hizkuntza erabiltzen den testuingurua irudikatzen du eta errealitatea islatzen saiatzen dira, hau da, hizkuntza erabiltzen dutenen artean zer nolako erabilera egiten duten.

Beste batzuen ustez, corpusak dira ordenaturiko datu multzoak, testu zientifiko edo testu literarioak, eta hauek ikerketen oinarri dira.

Beste alde batetik, Itzulpen-memoriak testu-biltegiak dira. Bertan, hizkuntza batean argitaratutako testuak jasotzen dira eta hauekin batera, beste hizkuntzetan egindako itzulpenak.

Itzulpen-memorien helburua da itzulpen prozesua azkartzea. Gainera, itzulpen-memoria terminoa oso erabilia da eta gehienetan ordenagailuz lagundutako itzulpenak identifikatzeko erabiltzen da.

Azkenik, itzulpen-memoriak oso baliagarriak dira edozein arloko itzulpen luzeak, teknikoak edo zientifikoak egiteko eta ezinbestekoak dira hizkuntzaren industriarako.

Laburbilduz, esan genezake baliabide informatiko efikazak eta azkarrak direla testuinguru zehatzeko hitzak edo hitzen multzoak bilatzeko. Hortaz, programa hauek arlo espezifiko batean erabiltzen den hiztegia kontsultatzeko aukera ematen digu. Honekin batera, hitz hauen erabilera, frekuentzia eta testuinguru ezberdinetan ematen diren ezberdintasunak adierazten dira.

Hasteko, corpus orokorrak eta espezializatuak azalduko dira eta ondoren, itzulpen-memoria orokorrak eta espezializatuak. Azkenik, bi baliabideen ekarpena azalduko da kriminologia arloan.

## II. Corpusak

### 1. Corpus orokorrak

Atal honetan hiru corpus orokorrak aztertuko dira: Ereduzko Prosa Gaur corpora, Goenkale corpora eta Consumer corpora.

#### 1.1. XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoa

Euskarazko lehen corpora izan zen, 1987an martxan jarri zena. Kasu honetan "zuzenbide" hitza bilatu egin da. Horretarako, dokumentuak sailkatzeko irizpideak honako hauek izan dira:

- Epea, lau garai nagusitan banatzen dira:
  - 1900-1939: mende-hasieratik gerra zibilaren amaiera arte
  - 1940-1968: gerraostetik euskara batuaren sorrera arte

### III. Ikasleen ekarpenak

- 1969-1990: euskara batuak ekarritako aldaketarekin hasi eta Euskaltzaindiaren gomendioak eta arauak artekoa.
- 1991-1999: araugintza berriaren ondokoa.
- Euskalkiak: Bizkaiera, Gipuzkera, Zuberera, Lapurtera-Nafarrera eta Euskara batua.
- Testu-mota: Saio-artikuluak, Administrazio idazkiak, Ikasliburuak, Saio-liburuak, Literatura-prosa, Poesia, Antzerkia, Bertsoak, Ikerketa-lanak, Haur-/ gazte-literatura, Ahozkoak, Liturgia, Egunkariak eta Aldizkariak.
- "Zer" atalean bi aukera daude:
  - Lema(k)
  - Testu-hitza(k).
- Bilatu atalean, bilatu nahi den hitza idatziko da, kasu honetan, zuzenbide hitza.

## XX. mendeko Euskararen Corpus estatistikoa

### kontsulta arrunta

Epea  Euskalkia  Testu-mota

---

Zer  Bilatu

Aurkitutako emaitzak hauek dira:

Epeen diagrama ikusi	Euskalkien diagrama ikusi	Testu-moten diagrama ikusi
<p>1. <a href="#">1900-1939 bizkaiera liturgia</a> k. basabe 0003 Euskaldun-arimen onerako alnebanchuan biarrrian asi nitzanetik, sartu jatan gogua ispillu chiki baten lez ipinteko aurrian euren kristinau-kizunak, bizitza on baterako <b>zuzen</b>-bidia, ta batezbe zelan ondo ta arin egin euren autorkuntza ta jaunartziak.</p>		
<p>2. <a href="#">1900-1939 bizkaiera saiakera-liburuak</a> eguzk gizauz 0190 Eta XI Pi Aita Santuak be argiro diño: Baña azaldu doguzan artezkunde ta obariok gizartean sendotu ta tinkatzeko, <b>zuzenbideari</b> lotzaiki bikaña dan maitasarra ezarri, erantsi ta gañeratu bear yako.</p>		
<p>3. <a href="#">1900-1939 bizkaiera saiakera-liburuak</a> eguzk gizauz 0190 <b>Zuzenbide</b> zeatza be orretarako naiko dala-ta, maitasun-legea ezetsi ta arbuyatzen dabenok, oker dagoz eta oker dabiltz.</p>		
<p>4. <a href="#">1900-1939 bizkaiera saiakera-liburuak</a> eguzk gizauz 0190 Ziñez, <b>zuzenbideak</b> beragaz dakartsan eta bidegabez bete ez tiran eginbearren ordain eta ordekotzat, <b>haridadea</b> bein be ezta etsi ta euki bear; baña gizon bakotxak, bereak dituan eskubide guztiak lortuko ba'leuz be, oraindik <b>haridadea</b> 'rentzat egiñenik asko geldituko litzateke.</p>		
<p>5. <a href="#">1900-1939 bizkaiera saiakera-liburuak</a> eguzk gizauz 0190 <b>Zuzenbide</b> utsak be gizarteko lazka ta burruka onen erro ta sustraya ayenatu dagikez; baña zeatzen bete arren be ezin daikez biotzak batu ta gogoak alkartu.</p>		
<p>6. <a href="#">1900-1939 bizkaiera saiakera-liburuak</a> eguzk gizauz 0190 Onelan ba, gaurko gizartearen gaxoa zearo osatu al izateko, <b>zuzenbidea</b> ta <b>haridadea</b> osoro bearrak dira; zuzenbidea lenen eta beste oroen oñarri; <b>haridadea</b>, barriz, aren nai ta naiezko geigarri.</p>		

Emaitzetan, alde batetik, testuaren argitalpenaren epea agertzen da, eta bestetik, erabilitako euskalkia eta ze motatako testua den. Azkenik, bilatutako hitza gorritz adierazten da.

**ESTEKA:** <http://xxmendea.euskaltzaindia.eus/Corpus/>

## 1.2. Ereduzko Prosa Gaur corpora

Corpus honetan euskarazko hitz garaikideak bere testuinguruan agertzen dira. Bertan, 25,1 milioi hitz agertzen dira guztira. Horietatik, 13,1 milioi hitz, liburuetatik hartutakoak dira eta 12 milioi hitz, berriz, prentsatik.

Bilaketaren emaitzetan, bilatutako hitza barneratzen duten esaldiek agertuko dira. Baina bilaketa egiterako orduan, "lema" edo "hitza" aukeratu beharko dugu. Hasteko, adibide moduan, "zuzenbide" lema bilatuko da eta ondoren, berriz, "zuzenbide" hitza:

1. "Zuzenbide" hitza idatzi eta eskuinean "lema" aukera hautatu.

Aipatu beharra dago, aplikazio honek aukera ematen duela corpusak murrizteko, eta baita bilatu nahi den hitza aukeratzeko ere. Hau da, prentsan edo liburuetan agertutakoak soilik ikusteko aukera daukagu.

2. Bilaketa egin ondoren, hauek izango litzateke emaitzak:

Emaitza orokorra	Prentsa	Liburuak	Corpusa murriztu
<b>Emaitza: 1338 agerraldi / 1235 esaldi</b> <b>Liburuetan: 652 esaldi / 105 liburu</b> <b>Prentsan: 583 esaldi / 433 artikulua</b>			
<b>Euskal Herria, (BERRIA, 2004, 2006)</b>	352 agerraldi / 348 esaldi		
<b>Mundua, (BERRIA, 2004, 2006)</b>	104 agerraldi / 102 esaldi		
<b>Harian, (BERRIA, 2005-2006)</b>	65 agerraldi / 63 esaldi		
<b>Kultura, (BERRIA, 2004, 2006)</b>	34 agerraldi / 33 esaldi		
<b>Gaiak, (BERRIA, 2004, 2006)</b>	22 agerraldi / 21 esaldi		
<b>Astekari euskalduna, (HERRIA, 2001-2005)</b>	11 agerraldi / 11 esaldi		
<b>Kirola, (BERRIA, 2004, 2006)</b>	3 agerraldi / 3 esaldi		
<b>Ekonomia, (BERRIA, 2004, 2006)</b>	2 agerraldi / 2 esaldi		

Adibidea: “Zuzenbide” hitza bilatzeko hauxe izango litzateke erabili beharreko prozedura:

1. “Zuzenbide” hitza idatzi eta eskuinean “hitza” aukera hautatu.

Liburuak / Prentsa

1:  

[Morfologia:](#)

distantzia:

2:  

[Morfologia:](#)

distantzia:

3:  

[Morfologia:](#)

distantzia:

Kasu honetan ere, aplikazio honek aukera ematen du corpusak murrizteko eta bilatu nahi den hitza aukeratzeko.

2. Bilaketa egin ondoren, hauek izango litzateke emaitzak:

Emaiza orokorra	Prentsa	Liburuak	Corpusa murriztu
<i>Emaiza: 633 agerraldi / 584 esaldi</i> <i>Liburuetan: 267 esaldi / 57 liburu</i> <i>Prentsan: 317 esaldi / 259 artikulu</i>			
<b>Euskal Herria</b> , (BERRIA, 2004, 2006)	226 agerraldi / 224 esaldi		
<b>Harian</b> , (BERRIA, 2005-2006)	37 agerraldi / 35 esaldi		
<b>Mundua</b> , (BERRIA, 2004, 2006)	32 agerraldi / 31 esaldi		
<b>Kultura</b> , (BERRIA, 2004, 2006)	13 agerraldi / 13 esaldi		
<b>Gaiak</b> , (BERRIA, 2004, 2006)	9 agerraldi / 9 esaldi		

Emaitzak lau ataletan sailka daitezke: emaitza orokorra, prentsa, liburuak eta corpusa murriztu. Lehenengo aukeran, emaitzen kopuru totala agertuko da, eta honekin batera, liburuen eta prentsaren kopurua. Bigarren aukeran, artikuluen titulua eta hauen egilea agertuko da. Hirugarren aukeran, berriz, liburuen titulua eta egilea adieraziko da, baita hitza agertzen den orrialdearen zenbakia ere. Azkeneko aukerak ez dio prentsari eragiten, bakarrik liburuen ataleko corpusa murrizteko balio du. Atal honetan, liburuak urteen arabera sailkatu daitezke, eta liburu itzuliak edo jatorrizkoak aukeratu.

**ESTEKA:** <http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>


### 1.3. Goenkale corpusa

EHU-ko Euskara Institutuak eskaintzen duen corpusa da, ETB1en ematen den "Goenkale" telesailen erabiltzen diren elkarrizketetan oinarrituta dagoena. Hortaz, corpus honetan aurkitzen den materiala, telesailaren kapituluak egiteko erabili da.

Adibidea: "zuzenbide" hitza bilatuko da. Ezkerraldean eskaintzen diren bi aukeren artean (lema edo hitza) lema aukera hautatuko da.

### III. Ikasleen ekarpenak

Lortutako emaitzak honako hauek dira:



The screenshot shows a search interface with two tabs: 'Corpus osoan' and 'Hizketaldietan'. The 'Hizketaldietan' tab is selected. The interface displays the following information:

- 58 agerraldi / 57 paragrafo (45 atal)
- hizketaldietan: 56 agerraldi / 56 paragrafo (44 atal)
- 1 / 1 orrialdea
- 244 atala, BIGARREN AUKERA
- 1.Sek.: 2  
SARA.—Telefono-zenbakiak, **zuzenbideak**?
- 362 atala, HIL EGINGO ZAITU, HIL!
- 1.Sek.: 12  
LEIRE.—(BOEko fotokopia bat ateratzen du karpetatik) Kode Penal berria  
dun. **Zuzenbidea** ikasten duen adiskide batek utzi zidan.
- 424 atala, HAURDUN!
- 1.Sek.: 9  
ANE.—Hori **zuzenbidearen** printzipioetako bat da.

Emaitzak corpus osoan bilatu daitezke edo hizketaldietan bakarrik. Bietako bat aukeratu eta hitzaren agerraldien kopurua agertuko da. Ondoren, hainbat atal agertuko dira bilatutako hitza azpimarratuz.

**ESTEKA:** <http://www.ehu.eus/ehg/goenkale/>

#### 1.4. Consumer corpora

Corpusak Consumer Eroski aldizkarian argitaratutako testuak jasotzen ditu 1998tik aurrera.

Tresna honek ahalbidetzen du Consumer Eroski aldizkarian agertzen diren hitzak bilatzea eta aldizkariaren gainerako hizkuntzetara itzultzea. Hortaz, eleaniztasun tresna da, hiztegia kontsideratu daitekeena, hain zuzen, kontsumoari buruzko hiztegia.

Esaterako, ez da galego-katalan hiztegia existitzen. Baina corpus honen bidez, hitz galego baten kontsulta egin daiteke eta bere baliokidea aurkitu katalanean.

Dokumentuak sailkatzeko irizpideak honako hauek dira:

- Hizkuntza: gaztelania, euskara, galegoa edo katalana.
- Zer bilatu: lema edo hitza.
- Hitza: Bilatu nahi den hitza.

### III. Ikasleen ekarpenak

- Kategoria: forma edo lema aditzondo, aditza, adjektiboa edo izena den adieraziko da.
- Emaiza: emaitzak ze hizkuntzatan bilatzea nahi dugun zehaztu (gaztelania, euskara, galegoa edo katalana).

Adibidea: kasu honetan "zuzenbide" hitza bilatuko da, eta emaitzen hizkuntza katalana izatea aukeratu da.

[Aurkezpena](#)

## Consumer CorpUSA

Edozein hitz edo esamolde bilatu eta CONSUMER EROSKI aldizkariaren edukietan arakatu ondoren, bere baliokidea erakutsiko dizugu euskaraz, gaztelaniaz, galegoz edo katalanez.

Galdera				
Hizkuntza	Zer bilatu	Aukerak	Hitza	Kategoria
Euskara ▼	Lema ▼	Da ▼	zuzenbide	iz. ▼
Hizkuntza	Zer bilatu	Aukerak	Hitza	Kategoria
Euskara ▼	Lema ▼	Da ▼		

Emaiza
<input type="checkbox"/> Gaztelania <input type="checkbox"/> Euskara <input type="checkbox"/> Galegoa <input checked="" type="checkbox"/> Katalana
Grafiko aukerak
1. hitzaren forma ▼

Hurrengo taulan ikusten den moduan, emaitzak aukeraturako bi hizkuntzetan agertuko dira, bilatutako hitza azpimarratuz.

Emaitzak: 42 artikulua, 61 agerpen	
<b>Katalana</b>	<b>Euskara</b>
<b>2014-01: SENTENCIAS</b> <b>Sol.licita la resolució del contracte de compra d'un vehicle defectuós</b> A més, ho impedeix el dret processal espanyol, que no permet al consumidor ni la possibilitat de modificar la sol.licitud inicial ni presentar a aquest efecte una nova demanda.	<b>2014-01: SENTENTZIAK</b> <b>Ibilgailu bat erosteko kontratua baliogabetzeko eskatu du, hondatuta dagoelako</b> Gainera, Espainiako auzibide <b>zuzenbideak</b> galarazi egiten du, ez baitu onartzen ez kontsumitzaileak bere eskaria alda dezan, ez beste salaketa bat jar dezan horretarako.
<b>2012-05: CONTINGUT ESTÀNDARD</b> <b>Em caso: separació de béns o societat de guanyos?</b> Es el sistema més utilitzat per defecte a Espanya a les zones d'aplicació del dret comú.	<b>2012-05: EDUKI ESTANDARRA</b> <b>Nola ezkondu: ondasunak banatuta edo irabazpidezko erregimenean?</b> Espainian <b>zuzenbide</b> komuna baliatzen duten lekuetan, gehienez berez ezartzen da sistema hori.
<b>2009-12: CONTINGUT ESTÀNDARD</b> <b>Professionals de l'acord familiar</b> El mediador és un tercer imparcial, amb formació adequada (en dret, psicologia, treball social, etc.) que ha de tractar el conflicte de manera objectiva, amb equitat, sense prendre partit per cap de les parts i sense imposar l'acord.	<b>2009-12: EDUKI ESTANDARRA</b> <b>Adostasun bideak</b> Bitartekaria pertsona inpartziala izaten da, prestakuntza egokia daukana ( <b>zuzenbidean</b> , psikologian, gizarte lanetan...); era objektiboan landu behar du arazoa, zuzentasunez, inoren alde jarri gabe eta akordioa lortzeko betekizunik jarri gabe.
<b>2009-09: CONTINGUT ESTÀNDARD</b> <b>Massa lletra petita, incompliments en el termini de resposta i publicitat no del tot veraç, principals mancances</b> Aquesta situació es fa extensible a la resta de casos referents a totes les branques del dret. Ara bé, no sempre es pot confiar que aquestes empreses resolguin tota mena de problemes.	<b>2009-09: EDUKI ESTANDARRA</b> <b>Letra txiki gehiegi, erantzuteko epeak bete ez eta publizitatea, ez guttiz egiazkoa, horra zerbitzu horien gabezia nagusiak</b> <b>Zuzenbidearen</b> adar guztietan berdintsu jokatzen dute. Hala ere, <b>Zuzenbidearen</b> adar guztietan jarduten dute, lan-zuzenbidean, zerga-zuzenbidean, zibilean, merkataritza arlokoan edo zigor-zuzenbidean.
<b>2009-04: ENTREVISTA</b>	<b>2009-04: ELKARRIZKETA</b>

**ESTEKA:** <http://corpus.consumer.es/corpus/>



## 2. Corpus espezializatuak

Atal honetan hiru corpus espezializatuak aztertuko dira: Zientzia Irakurle Orentzat corpora, Pentsamenduaren Klasikoak corpora eta Zuzenbide corpora.

### 2.1. Zientzia Irakurle Orentzat corpora

Euskal Herriko Unibertsitateak egindako dibulgazio zientifikoko testuen corpora da. Helburu nagusia da eskaintzea egungo ezagutza zientifikoaren itzulpenak euskaraz. Honekin batera, euskarazko prosa zientifikoa biltzen da.

Adibidea: "Zuzenbide" hitza bilatuko da, eskuinean "lema" aukera hautatuz. Hala ere, "hitza" aukera hauta daiteke.

Emaitzak honako hauek dira:

Emaitza orokorra	Liburuak	Corpusa murriztu
<i>Emaitza: 5 liburu / 8 esaldi</i>		
<b>Klima-aldaketa globalaren zientzia eta politika</b> , A.E. DESSLER / E.A. PARSON / IÑAKI IÑURRIETA		4 agerraldi / 4 esaldi
<b>Loroaren teorema</b> , DENIS GUEDJ / JON MUÑOZ		2 agerraldi / 2 esaldi
<b>Sagua, eulia eta gizakia</b> , FRANÇOIS JACOB / JUAN GARZIA		agerraldi 1 / esaldi 1
<b>Formen matxinada</b> , JORGE WAGENSBERG / JUAN GARZIA		agerraldi 1 / esaldi 1

Emaitzak hiru ataletan sailkatzen dira:

1. Emaitza orokorra. Liburu eta esaldien kopurua agertuko da.
2. Liburuak. Liburuaren titulua eta egilea adieraziko da, baita hitza agertzen den orrialdearen zenbakia ere.
3. Corpusa murriztu. Liburuak hauta daitezke.

**ESTEKA:** <http://www.ehu.eus/ehg/zio/>

## 2.2. Pentsamenduaren Klasikoak Corpusa

KLASIKOAK deitutako asoziazioak argitaratutako lanak biltzen dituen corpusa da. Batzen diren liburuak 90. hamarkadatik aurrera argitaratutako liburuak dira, guztira 130.

Adibidea: "Zuzenbide" hitza bilatuko da, eta ezker aldean ematen diren aukeren artean (lema eta hitza), lema aukera hautatu da.

The screenshot shows a search interface with three rows. The first row is selected and contains the search terms 'lema' and 'zuzenbide'. Below the search terms are fields for 'Morfologia' and 'distantzia: 1'. The second and third rows are unselected and contain the same search terms and fields.

Emaitzak honako hauek dira:

Emaitza orokorra	Liburuak	Corpusa murriztu
<i>Emaitza: 85 liburu / 1615 esaldi</i>		
Munduko zuzenbideen testu-bilduma, GREGORIO MONREAL (ARGITARATZAILEA) / HARITZ MONREAL	418 agerraldi / 363 esaldi	
Izpiritu-zientzietarako sarrera, WILHELM DILTHEY / XABIER MENDIGUREN BEREZIARTU	181 agerraldi / 141 esaldi	
Legeen espirituaz II, MONTESQUIEU / IÑAKI INURRIETA	158 agerraldi / 113 esaldi	
Indio aurkitu berriak, FRANCISCO DE VITORIA / PIARRES XARRITON	127 agerraldi / 104 esaldi	
Entseuak III, MICHEL EYQUEM DE MONTAIGNE / EDUARDO GIL BERA	90 agerraldi / 80 esaldi	
Demokraziaren etorkizuna, NORBERTO BOBBIO / KOLDO BIGURI	85 agerraldi / 56 esaldi	
Masen Errebolta, J. ORTEGA Y GASSET / JUAN ANTONIO LETAMENDIA	63 agerraldi / 52 esaldi	
Entseuak II, MICHEL EYQUEM DE MONTAIGNE / EDUARDO GIL BERA	59 agerraldi / 58 esaldi	

Emaitzak hiru ataletan bereizirik eskaintzen dira:

1. Emaitza orokorra. Liburu eta esaldien kopurua agertuko da.
2. Liburuak. Liburuaren titulua eta egilea adieraziko da, baita hitza agertzen den orrialdearen zenbakia eta testuingurua ere.
3. Corpusa murriztu. Bilaketa liburu jakinetan egiteko aukera eskaintzen du.

**ESTEKA:** <http://www.ehu.eus/ehg/pkc/>

## 2.3. Zuzenbide Corpora

---

Zuzenbide Corpora Euskara Institutuaren ekimena da, UPV/EHUren Zuzenbide Fakultateko Euskara Juridikoaren Mintegiarekin lankidetzan garatuta. Bertan, euskarazko lege-testu, eskuliburu eta Zientzia Juridikoen alorreko hainbat artikulu jasotzen dira. Corpus honen helburua da euskara juridikoaren testu garrantzitsuenak eskuragarri egotea pertsona guztientzako. Baliabide hau hainbat erakundeengatik bultzatu da:

- UPV/EHUren Zuzenbide Fakultatea
- Eusko Jaurlaritzaren Justizia Saila
- IVAPen Itzulpen Zerbitzu Ofiziala
- Deustuko Unibertsitatea
- UZEI
- Eta abar

Corpus hau, urtero eguneratzen da berriak diren lege-testu eta testu akademiko esanguratsuenekin. Aipatu beharra dago, etorkizunean beste testu-motak barneratuko direla, esaterako, jurisprudenzia, notario alorreko inprimakiak eta abar. Baina testu berri hauek soilik barneratuko dira, testu-masa adierazgarria lortzen denean.

Corpusa 595 dokumentuk, 456 lege-testuek eta 139 testu akademikoek osatzen dute.

Adibidea: “Zuzenbide” hitza bilatzeko haxe izango litzateke erabili beharreko prozedura:

1. “Zuzenbide” hitza idatzi eta eskuinean “lema” aukera hautatu. “Lema” aukeraz gain, aplikazio honek aukera ematen du “hitza” aukera hautatzea.

2. Bilaketa egin ondoren hauek izango lirateke emaitzak:

Beste aplikazio batzuetan bezala, honek ere, aukera ematen du corpusak murrizteko eta lege-testuetako edota testu akademikoetako emaitzak soilik ikusteko.

**ESTEKA:** <http://www.ehu.eus/ehg/zuzenbidea/>

### III. Itzulpen-memoriak

#### 1. Itzulpen-memoria orokorrak

##### 1.1. *Bizimena Itzulpen-Memoria*

Bizkaiko Kulturako foru diputatuak eta ELEKA-ko ordezkariak Bizimena itzulpen-memoria eta Hiztegi terminologikoa aurkeztu zuten, herritarrentzako Internet bidezko baliabide berri bezala.

Bizimena itzulpen-memoriak itzulpen unitateak gordetzen dituzten datu baseak dira, esaterako, hitz multzoak.

Baliabide berri hau Foru Aldundiaren web-gunetik erabilgarri egongo da eta baliagarria da:

- Itzultzaileentzako, haien lana burutzen lagundu ahal duelako.
- Ikerlariarentzako, euskararen erabilera bermatu ahal izateko.

### III. Ikasleen ekarpenak

- Euskara ikasten dutenentzat, zailak diren hitzak edota hitzei buruz dituzten zalantzak kontsultatu ahal dituztelako.
- Euskaldun pertsonentzat, memoria hauek ordenatutako corpusak direlako.

Itzulpen memoria honek duen abantaila da, etengabe eguneratzen dela. Baliabide honek, konfidentziasuna babesten du eta pertsonen datu pertsonalak eta pribatuak ezabatzen ditu.

Memoria hau lehengo pausua da corpus euskaldun baten eraketarako. Beraz, administrazio publiko guztiek parte hartzen badute aurrerapen handiak egingo dira euskararen arloan.

Interneten eskuragarri dagoen tresna honetan, administrazioarekin batera, bestelako entitateek parte hartu dezakete. Gainera, itzultzaileek euren ekarpenak egin ditzakete.

Adibidea: “Zuzenbide” hitza bilatzeko hauxe izango litzateke erabili beharreko prozedura:


1. Bizkaiko Foru Aldundiaren web gunean sartu eta ondoren, “SARTU” botoian klikatu.

The screenshot shows the website 'Bizimena' with the title 'Itzulpen Memoriak'. The page features a search bar and a 'SARTU' button. Below the button is a link 'Erregistratu/ako Erabiltzailea'. The page also includes a sidebar with a list of 'ATALAK' (sections) such as 'Itzulpen Memoriak', 'Derriak', 'Alkartzide', 'Argitalpenak', 'Bizkaiko gailurrak', 'Esteka Interesgarriak', 'Eurovoc', 'Azkue Fundazioa', 'Toponimoak', 'Tresna Interesgarriak', 'Banden Lehia 2011', 'Euskararen Eguna 2015', 'Hitzegi terminologikoak', 'DandaDeat.com', and 'Lauaxeta Sarria'. The main content area contains text about the project and a 'SARTU' button.

### III. Ikasleen ekarpenak

2. Bigarren pausua izango litzateke “\*Bilaketa” hitzaren alboan agertzen den laukian “Zuzenbidea” hitza idaztea. Ondoren, “Bilatu” gainean sakatuko da bilaketa

14



The screenshot shows the search interface of the Bizkaia website. The search bar contains the text '\*Bilaketa: Zuzenbidea'. Below the search bar, there are radio buttons for 'Euskara' (selected) and 'Españero'. There is also a 'Bilatu' button. The page header includes the Bizkaia logo and navigation links for 'Euskara' and 'Español'. The footer includes contact information and social media links.

3. “Bilatu” aukeran klikatuz gero, emaitzak aterako dira bi zutabetan antolatuta; ezkerreko zutabean erdarazko hitza agertuko da, eskumakoa, berriz, euskarazkoa.

EMAITZAK: 37 emaitza 10 dokumentutan

1/10 053\_100310\_000046564\_eo201\_eu.txt.txt  
Sortze data: 2011-11-08 | Zuzendua: /Bil | Etilaketa: BPA | Gaita: Besterik

ES	EU
f) Cualesquiera otros medios de prueba admitidos en derecho.	f) Zuzenbidean onartutako beste edozein frogabide.
Entregas dinerarias sin contraprestación otorgadas por fundaciones y entes de derecho público dependientes de la Administración Foral del Territorio X X que se rijan por el derecho privado.	Kontraprestaziorik gabako diru-emateak, zuzenbide pribatuak arautzen dituen Xko lurralde X X Administrazioaren menpeko fondazioek edo zuzenbide publikoko erakundeek egindakoak.
b) Los Diputados o las Diputadas Forales y los órganos competentes de las entidades de Derecho público de la Administración Foral; las subvenciones o ayudas que no superen los 00.000 euros.	b) X diputatuak eta X Administrazioleko zuzenbide publikoko erakundeak: 00.000 euro baino handiagoak ez diren diru-laguntzak edo laguntzak.
Cantidades a reintegrar por fundaciones dependientes de la Administración Foral; organismos o entidades de derecho público vinculadas o dependientes de la Administración Foral.	X Administrazioaren menpeko fondazioek eta X Administrazioaren menpeko zuzenbide publikoko erakundeak izan behar diren zenbatekoak.
Justificación de subvenciones concedidas por la Administración Foral a otras Administraciones así como a sus organismos y entidades de derecho público vinculadas o dependientes de éstas.	X Administrazioak beste administrazioei biltzuzen bide publikoko erakundeak emandako diru-laguntzak justifikatzea.

4. Emaitzetan ikusi daiteke, “Zuzenbidea” hitza duten testu guztiak agertzen direla, dokumentuen arabera sailkatuta. Aipatzekoa da, bilatutako hitza azpimarraturik agertzen dela.

#### ESTEKA:

[http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=6130&id\\_oma=CA&dpto\\_biz=4&codpath\\_biz=4%7C292%7C6130](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6130&id_oma=CA&dpto_biz=4&codpath_biz=4%7C292%7C6130)

1.2. I-Memoriak

Itzulpen datu basea da, Gipuzkoako Foru Aldundiak sortua, eta etengabe eguneratzen dena. Itzuli nahi den esaldia agertuko da jatorrizko hizkuntzan, honen itzulpenarekin batera. Esaldia hizkuntza askotara itzuli baldin bada, esaldia hizkuntza guztietan azalduko da. Gainera, itzulpenarekin, data, gaia eta dokumentu mota adieraziko da.

I-Memoriak webgunean sartu ondoren, ezker aldean ikus dezakegu bilaketa soila edo bilaketa aurreratua egiteko aukera dagoela:



1. Bilaketa soila hautatzen bada:

Kasu honetan, "Zuzenbidea" hitza bilatuko da, hizkuntza aukeren artean (euskara edo erdara) euskara aukeratuz eta "Bilatu" botoia klikatuz bilaketa egiteko. Emaitzak honela ematen dira:




Aurretik esan bezala, dokumentuaren data, mota eta dokumentu bera agertuko dira. Hauek bi zutabetan agertzen dira sailkatuta, ezker aldean euskarazkoak eta eskuinaldean, berriz erdarazkoak.

2. Bilaketa aurreratua hautatzen bada:



Kasu honetan, bilaketa antzekoa da, baina bilaketa gehiago zehaztuko da. Horretaz gain, emaitzak modu berdinean agertuko dira. Hortaz, baldintza batzuk finkatu behar dira:



- Hizkuntza: euskara edo espainiera.
- ETA: galdetzen diren hitz guztien itzulpenak agertuko dira bilaketa bakar batean.
- EDO: kasu honetan, bilaketa ezberdinak egingo dira. Adibidez, "zuzenbide penal" hitza bilatzen bada, "zuzenbide" hitza dituen itzulpen guztiak agertuko dira, "penala" hitza dituen guztiak eta baita, "zuzenbide" eta "penala" hitzak batera dituztenak.
- TARTEAN: bilatzen diren hitzen artean zenbat hitz ager daitezkeen.
- Azkenik, eskuineko laukian hitzak ordenatuta edo ordenatu gabe bilatzea zehatz daiteke. Adibidez, modu ordenatuan bilatzen bada, galdetutako hitzak jarri diren ordenan agertuko dira.

**ESTEKA:** <http://www.gipuzkoa.eus/imemoriak/>



## 2. Itzulpen-memoria espezializatuak

### 2.1. IDABA



ELET aplikazio informatikoan kontsulta daiteke IDABA. Aplikazio honetara sartzeko bi modu daude:

1. JASO sarearen bidez. Sare hau, Euskal Herriko Administrazioen komunikazio sare bat da.
2. UPV/EHUko ikasle izanda VPN-aren bidez erabili liteke. Ikasleek VPN haien ordenagailuetan deskargatu edota unibertsitateetako ordenagailuetatik erabili ahal izango dute.


Adibidea: “Zuzenbide” hitza bilatzeko hauxe izango litzateke erabili beharreko prozedura:


1. Lehenengo, IVAPen web gunera sartu.
2. IVAPen web gunean sartu ondoren, ezker aldean agertzen da “ELET” aukera hautatu.
3. Ondoren, “ELET” ikonoaren gainean klikatu.



4. Ikonoan klikatuz gero, hurrengo leihatila zabalduko da. Bertan "Testu itzuliak" aukera hautatu, eta bilaketa ohiko moduan egin.

Hurrengo irudian ikus liteke emaitzak nola ikusten diren:






Hasiera ELET  
EU ES

Anonimo ELET barra Laquntza Kontakua Irten

Erabiltzailea, hemen zaud: Hasiera ELET >

Testu itzuliak



»Corpusetan bilatu

Erabilera-adibideak

»Dokumentu-ereduak

Dokumentu-ereduak

»Dudanet

Dudanet

»Estekak

Estekak

»Gramatika

Aditzen jokatzea

Deklinabidea

Gramatika

»Hiztegietan bilatu

Hiztegiak

»IDABA kontsultatu

Izendegiak

Legedia euskaraz

Testu itzuliak

»Kudeaketa

Ba al zenekien kudeaketa

»Nola idatzen da...?

Datak eta orduak nola idatzi

Zenbakiak testuz idatzi

»ZalaNET

ZalaNET

**Emaitza**

Bilatutakoa: zuzenbide%  
Aurkitutakoak: 10969 [Bilaketa findu](#)

1. 2016/06/23 00:00:00 Enplegu eta Gizarte Politiketako Saila (2012) Itzulpen arruntak Dekretua sozietate publikoak\_bat\_egiteko\_dekretua.sdxliff

<p><b>EU</b> Legegintzako Dekretu horren 22. artikulua xedatzen duenez, «aurreko artikuluetan xedatutako aplikatzea eragotzi gabe, EAeko Ogasun Nagusiko gai propioei dagokienez, gai horiei buruzkoak dira eta beren beregi aplikagarriak zaizkien xedapenen arabera arautuko dira sozietate publikoak, eta xedapen horien kontraesanen ez dagoenean, zuzenbide pribatuaren arabera arautuko dira.»</p>	<p><b>ES</b> El artículo 22 del mencionado Decreto Legislativo dispone que «Sin perjuicio de lo dispuesto en los artículos precedentes, las sociedades públicas se regirán, en relación con las materias propias de la Hacienda General del País Vasco, por las disposiciones referentes a las mismas que les sean de expresa aplicación y, en lo que no las contradigan, por el derecho privado.»</p>
--	--
2. 2016/06/23 00:00:00 BOE Itzulpen arruntak Estatuko lege-araua 2016-06-23ko sumarioa

<p><b>EU</b> Hutsen zuzenketa, honako lege honena: 5/2015 Legea, ekainaren 25koa, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa.</p>	<p><b>ES</b> Corrección de errores de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco.</p>
---	--
3. 2016/06/13 00:00:00 Herri Administrazio eta Justizia Saila (2012) Oinarritzko itzulpenak Lege-araua 9/2016 LEGEA, EAeko Fundazioei buruzkoa

<p><b>EU</b> 4.7 Fundazio bat «mortis causa» egintza bidez eratzeko kasuan, testamentugileak fundazio bat sortu nahi duela eta hasierako zuzkidurako ondasun eta eskubideak xedatu nahi dituela besterik adierazi ez bada, legeak eskutatako gainerako betekizunak jasoko dituen eskritura publikoak testamentu-albazeak edo Euskal Zuzenbide Zibileko komisarioak egiltzatu du, eta, halakorik ezean, testamentuzko oinordekoak.</p>	<p><b>ES</b> 4.7 Si en la constitución de una fundación por acto «mortis causa» la persona testadora se hubiera limitado a establecer su voluntad de crear una fundación y de disponer de los bienes y derechos de la dotación inicial, la escritura pública en la que se contengan los demás requisitos exigidos por la ley se otorgará por quien sea albacea testamentario o por el comisario o comisaria de Derecho civil vasco, y, en su defecto, por las personas herederas testamentarias.</p>
---	--
4. 2016/06/13 00:00:00 Herri Administrazio eta Justizia Saila (2012) Oinarritzko itzulpenak Lege-araua 9/2016 LEGEA, EAeko Fundazioei buruzkoa

<p><b>EU</b> 1.7 Aurreko artikuluko a) idatzi-zatian adierazitakoa gertatuz gero, fundazio zuzenbide osoz azkenduko da.</p>	<p><b>ES</b> 1.7 En el supuesto del apartado a) del artículo anterior, la fundación se extinguirá de pleno derecho.</p>
---	---
5. 2016/06/13 00:00:00 Herri Administrazio eta Justizia Saila (2012) Oinarritzko itzulpenak Lege-araua 9/2016 LEGEA, EAeko Fundazioei buruzkoa

<p><b>EU</b> Gogoan izan behar da, gainera, Zuzenbide publikoaren artiko erregulazioez gain, Zuzenbide zibilarri dagokionez, lege berriak egungo Euskal Zuzenbide Zibilerara egokitu behar duela erregulazioa, Euskal Zuzenbide Zibilarri buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen arabera, dena ere Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak 10.5 artikulua bidez gure Autonomia Erkidegoari ematen dion eskumen esklusiboari jarraituz.</p>	<p><b>ES</b> No puede olvidarse tampoco que, además de su regulación de Derecho público, es necesario que en su vertiente regulatoria del Derecho civil, la nueva ley adapte su regulación a la realidad actual del Derecho civil vasco, de conformidad con la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco, todo ello en virtud de la competencia exclusiva que el artículo 10.5 del Estatuto de Autonomía vasco atribuye a nuestra Comunidad Autónoma.</p>
--	--
6. 2016/06/13 00:00:00 Herri Administrazio eta Justizia Saila (2012) Oinarritzko itzulpenak Lege-araua 9/2016 LEGEA, EAeko Fundazioei buruzkoa

<p><b>EU</b> Kode Zibilarren 1024. artikuluan eta, kasua hori bada, Euskal Zuzenbide Zibilean aipatutako egintzak dirala-eta inbentario-onuraren galerak badaude, patronatutakideek erantzungo dute fundazioaren aurrean.</p>	<p><b>ES</b> Los patronos o patronas serán responsables frente a la fundación de la pérdida del beneficio de inventario por los actos a los que se refiere el artículo 1024 del Código Civil y, en su caso, el Derecho civil foral vasco.</p>
---	---
7. 2016/06/13 00:00:00 Herri Administrazio eta Justizia Saila (2012) Oinarritzko itzulpenak Lege-araua 9/2016 LEGEA, EAeko Fundazioei buruzkoa

<p><b>EU</b> Eta beste alderdi bat, berria hori ere, fundazioen eraketari dagokionez: espresuki jasotzen dira Euskal Zuzenbide Zibileko oinordetza-arabidearen aurreikuspen guztiak, beren bereztasun guztiak.</p>	<p><b>ES</b> Y un aspecto también novedoso respecto a la constitución de las fundaciones es que se recogen expresamente las previsiones del régimen sucesorio del Derecho civil vasco con todas sus particularidades.</p>
--	---
8. 2016/06/03 00:00:00 Ekonomia eta Ogasun Saila(2009-2012) Itzulpen arruntak Informazio-buletina Euskal Sektore Publikoa: fitxak

<p><b>EU</b> i)Onuradun legeez edo zuzenbidez onartutako edozein bidez, eta indarreko araudiak zehaztutakoarekin bat etorri, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari babesa ematea honako jardura hauekin: Euskal Autonomia Erkidegoari etxebizitzak lehenitasunez eskuratzeko aitortutako eskubideaz lehentasunez erosi eta atzera eskuratzeko eskubideaz baliatze bitartekaritza-, kudeaketa- eta exekuzio-jarduretan, hain zuzen; eskubide hori babes ofizialeko etxebizitzak eskualdatzeari dagokionez aitortu da; betiere, apirilaren 15eko 7/1988 Legean eta hori garatzeko araudian jasotako baldintza eta zehazpenekin bat etorri, bai eta maiatzaren 6ko 103/1007 Dekretuarekin eta arlo honetako arauak garatu edo ordezteko ematen den beste edozein araudirekin ere.</p>	<p><b>ES</b> i)Dar soporte a la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en calidad de beneficiaria por cualquier medio admitido en derecho, y de acuerdo a lo que la normativa en vigor determine, en la realización de las actuaciones de intermediación, gestión y ejecución del derecho de adquisición preferente (vía derechos de tanteo y retracto) reconocido a favor de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi en las transmisiones de viviendas de protección oficial, en los términos y condiciones de la Ley 7/1988, de 15 de abril, y normativa de desarrollo de la misma, en especial, el Decreto 103/1997, de 6 de mayo, así como cualquier otra normativa que se pudiera dictar en sustitución o desarrollo de la existente sobre la materia.</p>
---	---
9. 2016/06/02 00:00:00 Herri Administrazio eta Justizia Saila (2012) Oinarritzko itzulpenak Lege-araua 7/2016 LEGEA, Euren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa

<p><b>EU</b> Administrazio-jardunak legeari eta zuzenbideari men egin behar diela-eta, administrazio publikoek zerbitzu juridiko egokiak izan behar dituzte ezinbestez, bermatuta gero dadin betebehar hori, bai aholkularitza juridikoaren arloan, bai administrazio horien titularitatepeko eskubideak eta interesak epaiketetan defendatzeko zereginean.</p>	<p><b>ES</b> El sometimiento pleno de la actuación administrativa a la ley y al derecho impone a las administraciones públicas la necesidad de disponer de servicios jurídicos adecuados para garantizar tal obligación, tanto en su vertiente de asesoramiento jurídico como en la tarea de defensa judicial de los derechos e intereses de los que tales administraciones sean titulares.</p>
---	---
10. 2016/06/02 00:00:00 Herri Administrazio eta Justizia Saila (2012) Oinarritzko itzulpenak Lege-araua 7/2016 LEGEA, Euren Zerbitzu Juridikoa Antolatzekoa

<p><b>EU</b> Bestalde, II. kapituluak, aholku juridikoa emateko</p>	<p><b>ES</b> El capítulo II regula la función de asesoramiento</p>
---	--

ESTEKA: <http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vizo03/eu>

## 2. Justizia sailaren itzulpenak

---

Justiziaren inguruko hitzen eta esapideen itzulpenak eskaintzen dituen zerbitzua da. Oso erabilgarria izan daiteke Kriminologiaren zein Zuzenbidearen arloan lan egiten duten profesionalentzat. Itzulpen-memoria honetan “Zuzenbide” hitza bilatu nahi bada, bi aukera daude:

- Bilaketa soila:
  1. Justizia.net-en web gunean sartu eta orrialdearen goikaldean “Zerbitzuak eta izapideak” jartzen duen atalaren gainean klikatu beharko da.

2. Ondoren, “Erabilgarria” atalean “euskara justizian” aukera hautatu beharko da.

### Erabilgarria

- ♦ Herritarrentzako arreta
- ♦ Enkante judizialak
- ♦ Enplegu publikoa
- ♦ Euskara justizian

3. Honen ondorioz, “itzulpen juridikoak” jartzen duen hutsunean egingo den bilaketa idatziko da, kasu honetan, “Zuzenbidea”. Gainera, bilaketa erdaraz edo euskaraz egiteko aukera ematen du.


4. Azkenik, “Bilatu” aukera klikatuz, emaitzak aterako dira.

Emaitzak bi zutabetan antolatzen dira, ezkerrean euskarazko hitzak agertuko dira (bilaketa euskaraz egin bada) eta eskuinaldean, berriz, erdarazko hitzak. Bilaketa gaztelaniaz eginez gero, emaitzak alderantziz aterako dira (gaztelaniazkoak, ezkerrean).

- Bilaketa aurreratua:

Bilaketa aurreratua egiteko, bilaketa soilan jarraitzen den prozesu bera jarraituko da “Itzulpen juridikoa” atalean hitzaren bilaketa egin arte.

1. Hasteko, “Itzulpen juridikoa” atalaren azpian “Bilaketa aurreratua” aukera hautatuko da.



2. Aurreko pausua egin ondoren, leihatila berria zabalduko da.

**Itzulpen juridikoen kontsulta**

Testua:    
euskara > gaztelania

Bilatu:

Kasu honetan, bilaketa egiteko modua parekoa da. Hala ere, zehaztasun gehiago egongo dira eta emaitzak modu berdinean agertuko dira. Hortaz, argibide batzuk egingo dira “bilatu” atalean. Bertan, bilaketa toki ezberdinetan egiteko aukera ematen du:

1. Denak atalean.
  2. Epaitegietako lexikoa atalean.
  3. Eredu Judizialean.
  4. Legeetan.
  5. Dokumentuetako testu libreetan.
  6. Epaitzak eta epaietan.
  7. Abokatuen ereduetan.
  8. Epaitegietako errotulazioetan.
  9. Aplikazioen etiketetan.
  10. Aplikazioetako datu-baseetan.
  11. Justizia.net-eko testuetan.
  12. Bake epaitegiko ereduetan.
3. Azkenik, “Bilatu” botoiaren gainean klikatu beharko da. Bertan, emaitzak aterako dira aurretik aipatu den moduan.

**ESTEKA:** <http://www.justizia.net/>

#### *V. Zer eskaintzen diote baliabide hauek zuzenbideko zein kriminologiako ikasle, aditu zein profesional bati?*

Corpusei dagokionez, corpus orokorrak baliagarriak dira edozein pertsonarentzako testu kopuru handi baten artean bilaketak egiteko. Baina, askoz erabilgarriagoak izan daitezke lan munduko arlo zehatz batzuentzako, esaterako, kriminologia eta zuzenbidea. Hauek, corpusetaz baliatzen dira haien lan esparruan egin beharreko idatziak ondo egiteko eta baita beste komunikazio mota batzuetan egokitasunez aritzeko ere. Beraz, arlo honetan erabili beharreko hitz bitxi edota teknizismoak zuzentasunez erailtzeko oso lagungarriak izan daitezke.

Alde batetik, corpusak bilaketak azkarrak egiteko aukera ematen digu. Hau da, baliabide elektroniko bat izanda, eta hitza beharrezko tokian sartuz gero, honek erantzun posible guztiak emango dizkizu denbora tarte murriztuan. Gainera, gaiaren eta hitzaren arabera filtratu ahal izango dira bilaketak, aukera guztien artean erantzun egokia erraztasun handiz aurkitzeko. Beste alde batetik, kontuan hartu beharko da baliabide elektronikoak izanik, batzuetan akatsak eman ditzaketela adibidez, sarean arazoak daudelako.

Edonola ere, azpimarratu beharra dago, Kriminologia eta Zuzenbidearen esparruan corpusak oso garrantzitsuak direla. Gainera, aurrerapen handiak egiten ari dira arlo honen inguruan, esaterako, Zuzenbide Corpusak etorkizunean beste dokumentu batzuk barneratuko ditu, haien artean, jurisprudenzia eta notariotzaren alorreko inprimakiak.

Itzulpen-memoriei dagokienez, funtzio nagusia iradokizun totalak edo partzialak ateratzea da. Aholku hauek, esaldietatik eta terminoen komuntaduretatik ateratzen dira. Errekurtso honek, testu ugari aztertzeko aukera ematen digute, baita komunean dituzten terminoak identifikatzeko aukera ere. Hori dela eta, memoriaren edukia eta indexatzeko sistemaren emaitzak onak badira, lan egiteko baliabide baliagarriak bilakatzen dira. Itzulpen memoriei esker lana azkartzen da, eta denbora aurreztu. Denbora hori erabili ahalko da testuaren kalitate orokorra hobetzeko.

Laburbilduz, esan dezakegu itzulpen memoriak ere oso baliagarriak izango direla kriminologiaren zein zuzenbidearen alorretan. Bereziki baliagarria dirudi Justizia Sailaren itzulpen-memoria, espezializatuta dagoelako justiziaren arloan erabiltzen den terminologian. Dena den, beste itzulpen memoria batzuk ere badaude herritarren esku daudenak, hau da, orokorrak direnak eta ez hain espezializatuak. Ezin ahaztu, bestalde, Kriminologiaren alorrerako interes berezikoak izan daitezkeela Foru Aldundiek eskaintzen dituztenak, besteak beste, gizarte-arloko terminologia eta esapideak jasotzen baitira bertan.

## Bibliografia

*XX. Mendeko euskararen corpus estatistikoa:*

<http://xxmendea.euskaltzaindia.eus/Corpus/>

*Goenkale corpora:*

<http://www.chu.eus/ehg/goenkale/>

*Consumer corpora:*

<http://corpus.consumer.es/corpus/>

*Ereduzko Prosa Gaur:*

<http://www.ehu.es/euskara-orria/euskara/ereduzkoa/>

*Pentsamenduaren Klasikoak Corpora:*

<http://www.ehu.es/ehg/pkc/>

*Zuzenbide Corpora:*

<http://www.ehu.es/ehg/zuzenbidea/>

*Zientzia Irakurle Ororentzat:*

<http://www.ehu.es/ehg/zio/>

*LATEI II. Memorias de traducción.* (s.f.). Recuperado el 16 de 12 de 2015, de Universidad de Murcia: <http://www.um.es/docencia/barzana/TEI/Informatica-Aplicada-a-la-Traduccion-Memorias-de-Traduccion.html>

*Tema 4. Meorias de Traducción.* (s.f.). Recuperado el 16 de 12 de 2015, de Universidad de Murcia: <http://www.um.es/docencia/barzana/TEI/JoseDaniel/IAT/Tema4completo.pdf>

*Bizimena Itzulpen-Memoria:*

[http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=6130&idioma=C&dpto\\_biz=4&codpath\\_biz=4%7C292%7C6130](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6130&idioma=C&dpto_biz=4&codpath_biz=4%7C292%7C6130)

*I-Memoriak:*

<http://www.gipuzkoa.eus/imemoriak/>

*IDABA:*

<http://www.ivap.euskadi.eus/r61-vizo03/eu>

*Justizia sailaren itzulpenak:*

<http://www.justizia.net/>